

Migratzaileei laguntzeagatik auzipetutako 7 ekintzailei babesa erakutsi diete milaka herritarrek

AGENTZIAK/LA HAINE :: 26/01/2025

“Migrazio politika hiltzaile eta arrazistak” salatu zituzten eta ekintzaileen kargugabetzea eskatu zuten mobilizazioan.

Iazko Korrikan 36 migratzailek Irun eta Hendaia arteko muga pasatu zuten, eta zazpi lagun auziperatu zituzten “talde antolatuan migranteak muga pasatzen eta aterpetzen” laguntzea leporatuta. Bihar epaituko dituzte zazpiak, eta horren harira, milaka herritar manifestatu ziren atzo goizean Irunen, auziperatuen kargugabetzea eskatzeko. Manifestariak Irungo Ficobatik abiatu ziren, Santiago zubia gurutzatu zuten eta Pausuko igarobidean amaitu zuten mobilizazioa. Osotara 2.500 herritarrek bat egin zuten deialdiarekin.

Antolatzaileak azaldu zutenenez, bi helbururekin bildu ziren: Batetik, “Europar eta estatu espainolean zein frantsesean ezartzen diren migrazio politika hiltzaile eta arrazistak” salatzea, zeinak “milaka lagunak bizitzak arriskuan” jartzen dituzten; bestetik, berriz, auziperatu dituzten Bidasoaren bi aldeetan antolatuta dagoen elkartasun sareko kideei elkartasuna adieraztea. “Etengabe eskatu dugu epaiketa bertan behera geratu behar dela; kargugabetu egin behar dituzte”, esan zuten. Ondoren kanpainaren eta manifestazioaren arrazioa eman zuten: “ez dago inongo deliturik egin duten lan horretan guztian; eta zeragatik diogu *j’acusse* edo *guk akusatzen dugu*: epaitu beharrekoa ez da elkartasuna, bederatzi pertsona Bidasoan hiltzera kondenatu dituzten migrazio politikak eta horiek indarrean jartzen dituztenak baizik”. Mobilizazioaren bukaeran, “Euskal Herria harrera herria izan dela, badela eta izaten jarraituko duela” adierazi zuten.

Asteartean epaituko dituzte zazpi ekintzaileak Baionako epaitegian, eta 13:00etan elkarretaratzea deitu dute epaitegiaren atarian horiei babesa adierazteko, eta jasotako autoinkulpazio guztiak eramango dituzte bertara.

(Argazkia:Guillaume Fauveau)

<https://eh.lahaine.org/migratzaileei-laguntzeagatik-auzipetutako-7-ekintzailei>